

Zertan arituko gara unitate honetan?

“Nondik gatoz,
nor gara,
goaz?”
never ending



where do we come from?
what are we?
where are we going?

Gauguin (1897-98)



Egoera aurkezten

EGOERA

Gauguin artistaren XIX. mendeko margolanak “**nondik gatoz? zer gara? nora goaz?**” du izenburu eta historian zehar, gizakiak, beste hainbat adierazpenetan ere sarritan agertu du gai horiekiko ardura; bizitzaren jirabiran, existentziari buruzko gogoeta eta interpretazioak.


Guk ere, haien antzera, **galdera horiei erantzunez, ikus hizkuntzaren adierazkortasuna, irudikapen moduak eta sinbolismoa baliatuz, “liburu amaigabea” sortuko dugu, jatorria eta mitoak (*kosmogonia*), sustraiak eta arbasoak (*nire genograma artistikoa*), “haiek” eta gu (*samhain, animekin bat*), “bizitza jirabiran” (*bizi energi*az), gaiak ilustratuz, amaitzean, azken ekitaldian aurkezteko.**

Arakatze jarduera


- zer dakigu?

Beraz, **ikus hizkuntzaren adierazkortasuna, irudikapen moduak** eta **sinbolismoa** baliatuz, "**liburu amaigabea**" sortuko dugu, "**nondik gatoz? zer gara? nora goaz?**" galderari erantzunez... Horretarako, **jatorria eta mitoak, sustraiak eta arbasoak, gaiak ilustratuz...**

Baina... Ba al dakigu zer diren **liburu amaigabeak**? Ezagutzen al ditugu ikus hizkuntzaren baitan **irudikapen moduak**? Ba al dakigu zer den **sinbolismoa**...? Eta zer diren **mitoak, kosmogonia, genograma artistikoa** ala **animen gaua**?...



I
Ea asmatzen duzun artelan honetan artistak baliatu zuen sinbolismoa:



	bizitzaren hasiera
	heldu-gaztearen eguneroko existentzia
	Heriotzara hurbiltzen den atsoa bere pentsamenduekin adiskidetu, onarpenez
	Hitzen hutsaltasuna edo hitz hutsalen gauza
	"Haratago" dagoena

- [Arakatze jarduera](#)

Where Do We Come From? What Are We? Where Are We Going?



Paul Gauguin frantziar artistaren margolana da.

Gauguin artista **post-impresionista** izan zen. Bere estiloagatik, kolore erabilera esperimentalagatik eta estilo sintetistagatik ezaguna, impresionistotik ezberdinak zirenak. Gauguinen arteak kolorearen eta pintzelada lodien erabilera bizia zuen, indar emozional edo espresionista helarazteko.

Bere bizitzaren azken aldera, hamar urte eman zituen Polinesia Frantsesean, eta bere margolan gehienek, orduetik, hango jendea edo paisaiak irudikatzen dituzte. Bere jatorrizko Frantzia baino gizarte sinple eta elementalago baten bila, Gauguin Tahitira joan zen 1891n. **Bere mitologia indibidualista adierazten duten beste hainbat margolanez gain, margolan hau 1897an edo 1898an osatu zuen. Gauguinek maisulana eta bere pentsamenduaren goren-maila, gailurra, zela uste zuen.**

Gauguinek adierazten zuen pintura eskuinetik ezkerrera irakurri behar zela. **Izenburuan agertzen diren galderak argitzen dituzten hiru irudi-talde handiekin, koadroa bizitzaren eta giza jardueraren eszenatoki bat da, jaiotzetik heriotzaraino, eskuinetik ezkerrera irakurrita.**

2

Ezagutzen al duzu Animen gaua, Gau Beltza, Samhain... deiturak hartzen dituen jai? Zer ospatzen da?



Planifikazioa

- Zer eskatzen zaigu? zer jakin behar dugu egoerari erantzuteko?
 - zein izango da ibilbidea?

Zer egingo dugu eta nola

- ★ **Liburu amaigabe** bat sortu.
- ★ **4 ilustrazio** sortuko ditugu, **gai** haven inguruan:
 - Nondik gatoz? **Jatorria eta mitoak**
 - Zer gara? **Sustraiak eta arbasoak**
 - Nora goaz? **"haiek" eta gu: samhain, animekin bat**
 - Bizitza amaigabea da? **Bizitza jirabiran: bizi energiaz**

<https://www.youtube.com/watch?v=3GpnDTP8ILg>